

Andoaingo Udalak kultura segurua dela berretsi eta udazkenerako Basteroko programazioa aurkezten du

- **Udaran zehar gauzatu den KALEGIROAN programazioan 700 ikuslek gozatu dute musika, dantza edo antzerkiaz**
- **Datorren ostiralean, urriak 2an, irekiko da Ondarreta ikastetxearen 50. urtemuga dela eta prestaturiko erakusketa**
- **Basteroko bazkideei hirugarren doako sarrera eskainiko zaie emanaldietarako eta zinerako, udaberrian izandako etenaldia konpentsatzeko eta partaidetza sustatzeko**

COVID19ak ezinbestean baldintzatu du egunerokotasuna eta baita kultura ere. Osasun alerta egoera martxan ipini zenean, herriko kultur ekipamendu eta jarduerak eten egin behar izan ziren, eta ekainetik hona etengabeko lana izan da berriro ere kultura programazioa martxan ipintzea, eta besteak beste, erabiltzaileek kulturaz segurtasun berme guztiekin gozatzeko aukera eskaintzea.

Hala, uztaila-iraila bitartean KALEGIROAN programazioa aurrera eramateko erabakia hartu zen, Txitxu Ruiz kultura zinegotziaren azaldu duenez "pertsonek arteko aldentze neurriak eta kalean ekitaldiak egiteko zailtasunak gaindituz". Horretarako, Ondarretako patio estalia erabili da uda osoan zehar burutu diren antzerki, musika edo dantza saioak gauzatu ahal izateko. **Guztira 700 pertsonak hartu dute parte 2020ko programazioan.** Horietatik interes eta jarraipen gehiena sortu dutenak: Anari-ren kontzertua 162 ikuslerekin (gonbidapen guztiak agortu zirelarik), HAATIK dantza konpainia 102 ikuslerekin eta Xabi Banbidi-ren kontzertua 90 ikuslerekin.

Ruizen iritziz "aurrekaririk gabeko egoera bat kudeatzea tokatu zaigu, osasun eta higieen irizpide zorrotzak ezarri behar izan ditugu, COVID19arekin elkarbizitzen ikasi behar izan dugu" eta honakoa nabarmendu du "beti izan dugu argi kultura agenda bizirik mantentzea lehentasuna zela". Honenbestez, udako esperientzia positiboarekin eta Bastero Kulturgunea erabili ahal izateko protokoloak prestatu ondoren, udazkeneko programazioa martxan ipiniko da.

Iyuya Urrutia kultura teknikariak azaldu duenez "udaberrian bertan behera utzitako ekitaldiak birprogramatu dira, eta eskaintza berria ere gehitu da". Kultura sailak oreka bilatu nahi izan du, helduentzako zein haurrentzako ekimenak eskaintzerakoan. Esfortzu berezi bat egin da Santa Zezilia musika zikloa indartzeko eta baita punta puntako musikariak Basteroko taulara ekarri ahal izateko, tartean, programazioari azala ematen dio Izaro abeslariaren emanaldia, bere "limones en invierno" lana aurkeztera etorriko delarik.

Sarrerak urriak 10etik aurrera egongo dira eskuragarri Internet bidez Kutxabank-en. Sarrerak modu elektronikoa erostea gomendatzen da, sarrerak imprimatu behar ez izateko. Hala ere, aurrez aurreko salmenta egiteko aukera izango da, Basteroko leihatila ostegunetan goizean 10:00etatik 13:00etara eta arratsalden 16:30-19:30.

Programazioa:

- **Urriak 16an:** Oreka TX, Koklea kontzertua.
- **Urriak 23an:** Ave Osos, "El mono habitado" helduen antzerkia.
- **Urriak 25ean:** Hansel eta gretel, Borobil teatroa.
- **Azaroak 6tik - abenduak 5era:** Paladin. Eremuak-harriak erakusketa. Miren Barrena, Leire Lacunza eta Ibon Landaren sorkuntza lanekin.
- **Azaroak 6an:** Liana Gourdjia biolinjolea eta Jokin Okiñena pianojolea.
- **Azaroak 13an:** Petti Banda + Melenas-en kontzertua.
- **Azaroak 15ean:** Laika, haur antzerkia.
- **Azaroak 20an:** The big Game - Konpainia Lokke - Olatz de Andres dantzaria.
- **Azaroak 21an:** Mozart-Bruch Connection. Estibalitz Sistiaga, Mikel Emezabal eta Mikel Urdangarin.
- **Azaroak 27an:** Golden Apple Quartet + Udal Musika Eskolako Banda.
- **Abenduak 11tik urtarrilaren 9ra:** Euskal Jantzien erakusketa.
- **Abenduak 11an:** Igel Euria, ados teatroa.
- **Abenduak 13an:** Ikimikiliklik, haur antzerkia.
- **Abenduak 18an:** Izaro " Limones en Invierno" kontzertuarekin.

COVID19ak eragindako etenaldiak Basteroko bazkideengan izandako eragina konpentsatu nahirik, Kultura Sailak neurri ezberdinak hartu ditu. Orain arte, bazkide bakoitzak urte osoan zehar 2 emanalditarako sarrera doan eskura zezakeen, eta zinerako beste horrenbeste. Hemendik aurrera, **bazkideek beste hirugarren sarrera bat eskuratu ahalko dute**, bai emanaldietarako eta bai zinemarako ere. 2020ko abendura bitartean erabili ahal izango da. Modu honetan, kultur ekitaldietan parte hartzera animatu nahi da.

Gogoratzen da bazkide izateagatik, Udaleko Kultura Sailak antolatutako ikuskizun guztietan %25eko beherapena dutela, eta baita bestelako erraztasun batzuk ere. Bestek beste, sarrerak **aurrez erreserbatzeko aukera** eskaintzen da: urriaren 2tik aurrera.

Ondarreta ikastetxearen 50 urteak erakusketan

Aurkezpen ekitaldian parte hartu du ere Ondarreta ikastetxeko zuzendariak, Maite Petricorenak. Datorren ostirala, urriak 2tik aurrera, **Ondarreta ikastetxe publikoaren 50. urteurrena** deituriko erakusketa izango da ikusgai. Erakusketaren ordutegia astelehenetik ostiralera 18:30 - 20:00 bitartean izango da (asteartetan itxita). Larunbatetan berriz, goizez 10:30 - 13:30 eta arratsaldez 18:00 - 20:30.

Andoaindar askorentzat bai bere heziketan, eta, noski, bere bizitzan hain garrantzitsua izan den eskola publikoaren memoria ekarriko da erakusketa gelara. Argazkiak, altzariak, liburuak, hitzak eta ikus-entzunezkoen eskutik azken bost hamarkaden ibilbidea izango da ikusgai.

Andoainen, 2020ko irailak 29

El Ayuntamiento de Andoain reafirma que la cultura es segura y presenta para otoño la programación de Bastero

- **En la programación KALEGIROAN, que se ha desarrollado durante el verano, 700 espectadores han disfrutado de la música, danza o teatro**
- **El próximo viernes, 2 de octubre, se abrirá la exposición con motivo del 50 aniversario del colegio Ondarreta**
- **A los socios de Bastero se les ofrecerá una tercera entrada gratuita para actuaciones y cine, para compensar así el parón de primavera y fomentar la participación**

El COVID19 ha condicionado inevitablemente el día a día de todas/todos y también la cultura. Cuando se puso en marcha la alerta sanitaria, los equipamientos y actividades culturales de la localidad tuvieron que ser suspendidos o cerrados, y desde junio ha sido un trabajo continuo volver a poner en marcha la programación cultural, y entre otras cosas, ofrecer a las personas usuarias la posibilidad de disfrutar de la cultura con todas las garantías de seguridad.

Así, entre julio y septiembre, se ha tomado la decisión de llevar a cabo la programación KALEGIROAN, superando, según explica la concejala de cultura Txitxu Ruiz, "las medidas de distanciamiento entre las personas y las dificultades para celebrar actos en la calle". Para ello, se ha utilizado el patio cubierto de Ondarreta para poder llevar a cabo las sesiones de teatro, música o danza que se han celebrado durante todo el verano. **Un total de 700 personas han participado en la programación 2020.** De ellos, los que más interés y seguimiento han generado: el concierto de Anari con 162 espectadores (agotándose todas las invitaciones), la compañía de danza HAATIK con 102 espectadores y el concierto de Xabi Banbidi con 90 espectadores.

En opinión de Ruiz, "Nos ha tocado gestionar una situación sin precedentes, hemos tenido que establecer criterios estrictos de salud e higiene, hemos tenido que aprender a convivir con el COVID19" y ha destacado que "siempre hemos tenido claro que mantener viva la agenda de Cultura era una prioridad". Así, con la positiva experiencia de verano y la elaboración de protocolos de seguridad para poder utilizar Bastero Kulturgunea, se pondrá en marcha la programación de otoño.

Iyuya Urrutia, técnico de cultura, explica que "se han reprogramado los eventos cancelados en primavera y también se ha añadido una nueva oferta". El departamento de Cultura ha querido buscar un equilibrio a la hora de ofrecer iniciativas tanto para adultos como para niños. Se ha hecho un esfuerzo especial para reforzar el ciclo musical de Santa Cecilia y poder traer a músicos de primera línea al escenario de Bastero, entre ellos, la actuación de la cantante Izaro, que da imagen a la portada de la programación y que viene a presentar su trabajo "limones en invierno".

Las entradas estarán disponibles en Kutxabank a partir del 10 de octubre. Se recomienda comprar las entradas de forma electrónica para no tener que imprimir las entradas. De todas formas, la taquilla de Bastero estará operativa los jueves de 10:00 a 13:00 horas y por la tarde de 16:30 a 19:30 horas.

Programación:

- **16 de octubre:** concierto de Oreka TX con "Koklea".
- **23 de octubre:** Ave Osos, teatro para adultos "el mono habitado".
- **25 de octubre:** Hansel y Gretel, teatro Borobil.
- **6 de noviembre - 5 de diciembre:** Paladín. Exposición Eremuak-Harriak. Miren Barrena, Leire Lacunza e Ibon Landa.
- **6 de noviembre:** la violinista Liana Gourdjia y el pianista Jokin Okiñena.
- **13 de noviembre:** concierto de Petti Banda + Melenas.
- **15 de noviembre:** Laika, teatro infantil.
- **20 de noviembre:** The big Game - Compañía Lokke - La bailarina Olatz de Andrés.
- **21 de noviembre:** Mozart-Bruch Connection. Estibalitz Sistiaga, Mikel Emezabal y Mikel Urdangarin.
- **27 de noviembre:** Golden Apple Quartet + Banda de la Escuela Municipal de Música.
- **Del 11 de diciembre al 9 de enero:** exposición de trajes vascos.
- **11 de diciembre:** Igel Euria, Ados teatroa.
- **13 de diciembre:** Ikimikilikiklik, teatro infantil.
- **18 de diciembre:** concierto de Izaro con "limones en Invierno".

Con el objetivo de compensar el impacto de las suspensiones realizadas por el COVID19 en las personas socias de Bastero, el Departamento de Cultura ha adoptado diferentes medidas. Hasta ahora, cada socia/socio podía adquirir entrada gratuita para 2 funciones durante todo el año y otras tantas para el cine. A partir de ahora, **las personas socias podrán adquirir otra tercera entrada**, tanto para las actuaciones programadas como para el cine. Esta oferta se podrá utilizar hasta diciembre de 2020. De esta manera, se quiere fomentar la participación en los actos culturales.

Se recuerda que por ser socias/socios, en todos los espectáculos organizados por el Departamento de Cultura del Ayuntamiento tienen un descuento del 25% y también otras facilidades. Entre otras cosas, se ofrece la posibilidad de **reservar entradas con antelación**: a partir del 2 de octubre.

Los 50 años del centro Ondarreta en exposición

En el acto de presentación también ha participado Maite Petricorena, directora del colegio Ondarreta. El próximo viernes, 2 de octubre, se podrá visitar la exposición conmemorativa del **50 aniversario del centro educativo Ondarreta**. El horario de la exposición será de lunes a viernes de 18:30 a 20:00 (el martes cerrado) y los sábados por la mañana de 10:30 a 13:30 y por la tarde de 18:00 a 20:30.

Se traerá a la sala de exposiciones la memoria de la escuela pública que tan importante ha sido en la educación y en la vida de muchas personas andoaíndarras. De la mano de fotografías, muebles, libros, palabras y audiovisuales se podrá ver el recorrido de las últimas cinco décadas.

Andoain, 29 de septiembre de 2020